

Literatura Astea aurkeztu da, aurtengoa itzulpengintzari lotua

2007/05/03

Maiatzaren 3an aurkeztu da prentsurreko batean HUHEZIk **Literatura Astearen IX. aldia**, izenburu honekin: "Literatura, itzulpengintza eta ikuskizunak". Parte hartu dute prentsurrekoan:

- **Karmele Perez**, Hizkuntzen departamentuko ordezkaria.
- **Bea Zabalondo**, Literatura Asteako antolatzaile nagusia.
- **Maider Otamendi**, Kultura zinegotzia Eskoriatzako Udalean.

Egitaraua

- **Maiatzak 8**, asteartea, 15:00etan. Xabier Payáren bertso saioa: Bertsoak itzul daitezke? Saio esperimental. Andoni Egaña eta Onintza Enbeitarekin, bertso-itzulpen jolasetan.
- **Maiatzak 9**, asteazkena, 11:30ean. Patxi Zubizarreta idazle eta itzultzailearen hitzaldia: Itzulpenaren erotika: ispilua eta larrua. Hitzaldi antzetzua, ikasleen laguntzarekin.
- **Maiatzak 10**, osteguna, 19:30ean. Txalo konpainiaren emankizuna: Artea. Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza.
- **Maiatzak 11**, ostirala, 11:30ean. Ikasleen Eguna. Beñat Zamalloaren bakarrizketa: Ai, Humbert, Humbert. Asier Arriagaren poesia emanaldia.

Helburuak

Literatura Astearen helburuak anitzak dira, literaturaren beraren helburuak ere askotarikoak dira eta. Hona zer lortu nahi dugun ekimen honekin:

- Artisten eta gizartearen arteko loturak sendotzea. Herriaren eta Literaturaren arteko kontaktu zuzena sustatzea, eta orohar Artearen ezagutza.
- Gure idazle eta artistekiko ezagutza handitzea.
- Literaturaren bidez jendea Fakultatera hurbiltzea.
- Literaturaren plazera konpartitzea.
- Gehiago irakurtzen duen gizarte bat bultzatzea.
- Arteaz gozatzeko aukera eskaintzea herriari.

Helburuen artean ditugu, halatsu, **euskararekiko atxikimendua** handitzea, eta euskara eta gozamina uztartzea.

Saio guztiak HUHEZIn bertan izango dira. Hala ere, fakultateko ikasleentzat ez ezik, Eskoriatzako herritarrentzat ere **irekiak izan ohi dira**, baita debagoiendarrentzat eta nahi duen edonorentzat ere.

9. Literatura-astea HUHEZIn
Mondragon Unibertsitatea-Eskoriatza

